

DIMAS SAÑUDO BILBOKO PSE UDAL TALDEKO BOZEROALEA

«EAJ eta PP artean geurea da zentzuzko jarrera bakarra»

PP eta PSEren indarra kontuan hartuta, Antonio Basagoiti popularrak, dagoeneko, egin deutso alkarregaz EAJ Udal Gobernutik botatzeko proposamena. Dimas Sañudo sozialistek erantzun deutso goizegi dala, berak be alkate izateko aukerarik badaukala.

Iñigo Bilbao

Bilboko udal taldeen bozeroalei egindako alkarriketekin jarraituz, BIZKAIA-k Dimas Sañudo PSE taldeko buruagaz egon da asteon, haren eritxia jaso eta ezagutu eragiteko.

■ Hauteskundeetara hurre-ratu ahala, tira-birak eta haserreak gero eta nabarmenagoak dira udalbatzarrean. Derrigorra da holan ibiltzea?

Derrigorra ez da, baina bai gertatzen danaren ondorioa. Gobernuak, dituan hutsak horren handiak diranez, setiatua ikusten dau bere burua, eta egoerari aurre egiteko hartzen dituan jarrerak ezinegona sortzen dabe. Arazoa ez da giro politikoa nahastuta dagoela, ez. Gauzea da Gobernuak kideek ez dituela aintzat hartu gura oposiziotik egiten doguzan proposamenak. Ezin dabe eroan botazinoak galdu edo besteok irabaztea.

■ Udal Gobernuaren jarduerari notea ipini ezkerro, zein ipiniko zeunskio?

Zero biribila, zalantza barik.

■ Zertan egin dau huts, bada?

Ez dira kapaz izan inogaz berba egiteko, edo arazoen urtenbideak berbatzeko. Nahiz eta ondo jakin legealdi hau sano gatxa izango zana, ez dira gai izan, indar nahikorik ez eukielako. Ez dira gai izan besteokin ezer berbatzeko, baina ezta mahai ganean behar dan moduko proposamenik ipinteko be. Gobernatzeko euki dituen trabek ez deusie itxi aukera handirik.

Esango neuke EAJk zuzentzen dauen Gobernuak ez daukala uri sentimendu nahikorik. Hiru edo lau proiektu jorratu ditue bai, neurri baten, baina lan egiterakoan ez dabe uriaren ikuspegi osoa hartu. Jeltzaleek ez daukie urirako proiektu zehatzik, eta, halandaze, ezta hori garatzeko proposamenik be. Nabarmena da.

Alkateak bai, kulturearen inguruko gauzatxo batzuk proposau ditu, eta sail batzutan zer edo zertxu egin dabe, baina beste barik. Uriak berba gitxiago eta egitasmo gehiago behar ditu. Geuk aspaldi esan genduan beharrezkoa zala urtero

uriaren ganeko egoerea aztertzeko aparteko udalbatzarra egitea. Kasurik ez deuskue egin.

■ Eta notea oposizinoari ipini ezkerro, zein?

Gainditu dogula uste dot. Ez neuke bikaina izan danik esango, egin behar genduna egin dogun arren, hau da, agintariekin egin ez dituen proposamenak mahai ganean ipini doguzan arren, ez dogulako horreek egitea lortu.

Zinegotzi sozialiston jardueraren ganean nabil, jakina, ez dot-eta besteena epaitu gura. Lau urteotan egin doguzan proposamenak aztertu ezkerro, argi geratzen da kontuan hartu doguzala uriaren garapena bermatzen dituen gai guztiak. Alde horretatik gure ardurak ondo bete doguz. Pozik nago.

■ PSEk gustokoa dau uriak hartu dauen norabidea?

ITAUN PROPOSAMENA

■ Alkarriketean egin ezkerro, zer itaunduko zeunskio Azkuna alkateari?

Nik jakin gura neuke ea alkatea prest ete dagoen herritarrekin batera beharrean jarduteko. Hori baino ez.

Jakina, garapen horretan geuk be parte hartu dogulako. Ezin da ukatu Bilbok hobera aldatu dauela, eta sozialistok eragin nabarmena izan dogu aldaketa horretan. Bilbo zerbait bada gaur egun, arinagoko sasoietan baten batek urirako zer gura eban hausnartu ebalako da. Eta hor, sozialistok buru-belarri egon gara. Garai baten, gobernuan; orain, oposizinoan.

■ Jeltzaleek dinoe Uren Partzuergoaren jarduerak iker-

keta egin eta akatsik susmatu ezkerro, PPkoek eta PSEkoek be bustita urtengo dozuela. Beldurrik bai?

Ez. Egiten dogun guztia ardura osoz egiten dogu guk. Huts egiten dogunean, huts egin dogula onartzeak ez deusku ardura. Egia da garai baten Uren Partzuergoko zuzendaritzako kide izan ginana. Eta egia da be kudeaketan ez genduala euki ardura berezirik. Hori jeltzaleen esku egon da beti. Huts egin genduan, bai, estatutoak onartzeko geure botoa emon genduan, eta horrexegaitik gabiltz egindako okerra zuzendu guran. Beldurra? Bape.

■ EAJk eta PPk daukien indarra kontuan hartuta, izan leiteke PSEk erabagitea alkate nor izango dan, ezta?

Gure esku badago, alkatea PSEko kidea izango da. Gure asmoa

GOBERNUA

“Ez dira kapaz izan inogaz berba egin edo urtenbideak beste taldeekin berbatzeko»

UREN PARTZUERGOA

“Estatutoekin huts egin gendualako gabiltz egindako okerra zuzendu guran»

URIAREN NORABIDEA

“Bilbok hobera aldatu dau, eta guk eragin nabarmena izan dogu aldaketa horretan»

MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS



irabaztea da, eta uste dot aukerarik badaukaguzala. Herri hone-tan gauzak aldatzen dabilz. Jentea gero eta gogaituago dago ikusita PP eta EAJkoak euren artean drogan dabilzala. Hortxe zentzuzko jarrera bakarra geurela dalako, botoaren joerea aldatu leitekeala eta guk irabazi geinkeala uste dot.

Eta irabazten ez badogu be, gobernuaren giltzea gure esku izango dogu. Horren ganean hauteskundeen ostean egingo dogu berba. Ez orain.

■ Baina, ikusten dozue zeuon burua barriro be jeltzaleekin gobernu arduratan?

Ez dakit. Ikusten dodan bakarra da hauteskunde lehian irabazteko sartuko garela. Gero gerokoa. Ganera, burubagekeria da herritarrek euren botoa emon baino arinago ustezko itunen ganean berba egiten ibiltzea.

■ Zertan oinarrituko dozue herritarrei egingo deusie-zuen eskaintzea?

Hauteskunde programeak hiru oinarri izango ditu: Bilborako eredu aurrerakoi bat eskaintzea, herritarren artean alkarbiziteko ereduak emotea eta herritarrekin sinatuko dogun kontratua garatzea. Gobernatzeko modu barriak preminazkoak dirala pentsetan dogu.

Gaur egun politikagintzan dabilzan guztiek jakin behar dabe egiten daben edozein proposamen herritarren babesagaz atara beharko dabela aurrea. Jai daukie bestela. Guk horri izateko eta jarduteko beste modu bat deitu deusagu.

Gaur egun ez dau ezertarako balio agintea lortu ostean, bulego baten sartu, funtzionario, teknikari edo politiko argiez inguratu eta zulo horretan sartuta ez dakit zelako proposamenak egitea, gero, inogaz lotu barik, indarrean ipinteko. Hori guztiori ez bada herritarren laguntzagaz egiten, alperrik da.

BAT-BATEAN

■ Zu zeu izango zaitugu PSEko zerrendako burua Bilbon. Jarraitzeko gogorik bai oraindino?

Bai, bai... benetan. Aitortzen dot inoiz nekatuta be egon nazela, eta egia da belaunaldi barriei leku itxi behar deusseguna. Baina munduko ilusino guztia daukat. Uste dot jente gitxi eukiten dauela bere herriko alkate izateko aukerea, eta horrek harrotu egiten nau, berbearen zentzurik onenean. Bai, gogo bizi-biziaz ditut nire alderdiren ize-nean aurrera egiteko.